



**ORDENANTZA 19. ZK**

**AGURAINGO UDALA**

**ARABAKO LURRALDEA**

**AGURAINGO UDALEKOAK DIREN 610 MENDIKO ‘SOTOS Y VARGAS’EKO ABELTZAINZAKO APROBETXAMENDUAK**  
**ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**I.- XEDAPEN OROKORRAK**

**1. Artikulua**

Aguraingo Udalekoak diren 610 Mendiko ‘Sotos y Vargas’eko abeltzaintzako aprobetxamenduak arautzea da ordenantza honen helburua, Arabako Lurralde Historikoko Mendien Erregimena arautzen duen, uztailaren 4ko 13/86 Foru Arauak xedatukoaren arabera.

Baso horietan, artzaintzak haien kontserbazioarekin eta hobetzearekin bateragarri izan beharko du, eta dauden larreak antolatzeko eta hobetzeko ahalegina egin beharko da, bai eta haiek hedatzekoa ere, basoei kalterik egin gabe. Betiere, oihan-beharrizanei erabateko lehentasun osoa emango zaie, abeltzaintza mugatu edo debekatu ahal izango da xede horiekin bateragarria ezin denean egin.

**2. Artikulua**

Abeltzaintza aprobetxamendua larreak zuzenean erabiltzea edo ustiatzea da, eta baita udaleko mendian abeltzaintzarako dauden hornidura eta azpiegiturak erabiltzea ere.

**II – ONURADUNAK**

**3. Artikulua**

Aguraingo Udaleko 610 mendiko abeltzaintza aprobetxamenduak erabiltzeko eskubidea, Aguraingo udalerriko herritarren ganadura mugatzen da.



### III.- ARTZAINITZA ALDIA

#### 4. Artikulua

Oro har, eta 2004 eta 2005 urteen artean, 'Sotos y Vargas'eko 610 mendian abeltzaintza aprobetxamendurako baimendutako aldia, martxoaren 1etik abenduaren 25era arte izan da urtero.

2006. urtetik aurrera, 'Sotos y Vargas'eko 610 mendian abeltzaintza aprobetxamendurako baimendutako aldia, apirilaren 1etik abenduaren 25era arte izango da urtero.

#### 5. Artikulua

Aguraingo Udalak bazkan jarduteko aldia alda dezake eguraldi aldaketak, larreen egoera edo bestelako arrazoiak horrela eskatuz gero.

### IV.- ESKATZAILEEN BALDINTZAK

#### 6. Artikulua

Bazkarako eskubidea izango dute baldintza hauek bete eta egiaztatzen dituzten eskatzaile guztiek:

- a) Adinez nagusia izan.
- b) Aguraingo udalerriko erroldan izena emanda egotea
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiatuegien erregistroan izena emandako nekazaritza ustiatuegiren baten titular izatea, eta larreak erabiliko dituen ganadua horretan ere izena emanda egotea. Aprobetxamendua erabiliko duen ganaduaren kopurua ezingo da inoiz erroldatuta dagoen kopurua baino handiagoa izan.
- d) Errolda, osasun eta kontrolari dagokienez, eskatzen diren bazketarako ganaduak organo eskudunak eskatzen dituen betebeharrak betetzea.
- e) Eskatzaileak osatzen duen ustiatuegiko partaide bakoitzakegunean izatea zerga eta tasa betebeharrak. Era berean, egunean izan behar ditu gainontzeko zerga eta auzoko betebeharrak atxikitako Toki Erakundearekin, hau da, Aguraingo Udalarekin.



## V.- ESKABIDEAK

### 7. Artikulua

Aprobetxamenduen eskatzaileek Aguraingo Udalaren egoitzan aurkeztuko dituzte eskaerak, urte bakoitzaren otsailaren 1etik martxoaren 1era arte urtero.

Eskaeran eskatzailearen datu pertsonalak, eskatzen den aprobetxamendurako abereen kopuru eta espezieak adieraziko dira zehatzmehatz. Horrekin batera, 6. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituen frogagiriak ere aurkeztuko dira.

Eskatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, udalak eskatzaileari eskatuko dio 10 eguneko epean hutsegitea konpontzeko. Horrela ez balitz, eskaera gordeko da bestelako tramiterik gabe.

## VI.- ABELTZAINEN ERREGISTROA

### 8. Artikulua

1. Aguraingo udalerriko ‘Sotos y Vargas’ 610 mendian abeltzaintza-aprobetxamendurako baimena duten abeltzainek Abeltzainen Urteroko Erregistroa osatuko dute.

Aipatutako Erregistro horretan honakoak jasoko dira: abeltzainaren izena eta helbidea, abeltzaintza ustiategiaren zenbakia, baimendutako aziendak, horien kopurua, espezieak eta datu adierazgarriak zehaztuz, bai eta, erabilera pribaturako baimenen bat duen ere.

2. Aguraingo Udalerriko Erregistroa osatzen duten abeltzainek, sor ditzaketen antolaketa erari kalterik sortu gabe, abeltzainen Batzorde ordezkaria izendatuko dute eta horrek kudeaketaren erakunde aholku-emale eta laguntzaile gisa jardungo du.

3. Aguraingo Abeltzainen Erregistroa osatzen duten abeltzainek aukeratuko dute Abeltzainen Batzordea. Gehienez ere hiru ordezkari osatuko dute eta eraketa hau izango du: azpisektore bakoitzeko ordezkari bana. Abeltzainen Batzordea aukeratu ondoren, Aguraingo Udalari jakinaraziko zaio. Era berean, Batzorde horrek izandako aldaketak jakinaraziko dira.

## VII.- BAIMENTZEKO GANADUAK ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK

### 9. Artikulua



Bazkatzeko baimena duten ganadu-espezie bakarrak ardiak, behiak eta zaldiak dira. Aguraingo Udalak beretzat gordeko du beste espezie batzuentzat larratzeko baimenak ematea, organo eskudunen txostena izan ondoren.

#### **10. Artikulua**

Aguraingo Udalak beste erakunde batzuekin batera beharrezkoak diren ikerketak egingo ditu larreen aprobetxamendua hobetzeko, mendian kalterik sortu gabe.

### **VIII.- ABELTZAINZA APROBETXAMENDURAKO BAIMENDUTAKO LEKUAK**

#### **11. Artikulua**

Erabat debekatuta dago abereak sartzea, zuhaitzak birsortzea babesteko asmoz hesitu diren lursailetan.

#### **12. Artikulua**

Udalak baldintza eta muga bereziak ezarri ahal izango ditu abeltzaintza-aprobetxamenduetan, zuhaiztietan zein mendiko beste baliabide batzuetan kalteak detektatzen dituenean edo hala komeni den egoerak biltzen direnean.

### **IX.- ESKATZAILEEN BETE BEHARRAK**

#### **13. Artikulua**

Honako hauek izango dira larreen aprobentxamendurako eskatzaileen bete beharrak:

- a) Udalaren ebazpenak onartzea, salbuespenik gabe.
- b) Laguntzea, bere ganaduaren kontrola mendi horretan egiteko Udaleko zein Arabako Foru Aldundiko ordezkariak hala eskaten dutenean.
- c) Lan amankomunetan parte hartzea eta larreak mantentzeko gastuak ordaintzea.
- d) Mendian egon daitezkeen bide zorrak eta hesiz inguratutako esparruak errespetatzea.



- e) Abeltzainen bat hesiak hautsi egin direla edo beste ekiporen batek kalteren bat duela konturatzen bada, ahal bezain laster jakinaraziko dio udalari. Halaber, gaixotasunen bat antzematen badu, Aguraingo Udalari zein Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari jakinaraziko dio.
- f) Udalak ezartzen duen kanona ordaintzea.

## **X.- ARAU HAUSTEAK**

### **14. Artikulua**

Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko Mendien Erregimena arautzen duen uztailaren 4an 13/86 Foru Arauaren Bostgarren ataleko zaintza lanez aparte, Aguraingo Udalak ordenantza betearazteko bere esku dituen baliabide guztiak baliatuko ditu:

- Horretarako baimenduta ez dauden larreetan bazkatzea
- Ganadua epez kanpo sartzea mendian.
- Abeltzaintza ekipamendu eta azpiegiturak behar den bezala edo baimenik gabe erabiltzea.
- Ganadu aprobetxamendurako ezarri diren kuotak ez ordaintzea.

## **XI.- ARAU HAUSTEAK**

### **15. Artikulua**

Aguraingo Udalak eskubidea du baimenik ez duen aberea, sasoiz edo ezarritako eremuez kanpo larreratutako aberea edo behar bezala identifikatuta dagoen aberea larretik ateratzeko. Abereak jaso eta zaintzeak eragiten dituen gastuak ganaduaren jabeak ordainduko ditu.

Hiru eguneko epean, Aguraingo Alkateak ganaduaren kanporatzearen berri emango dio jabeari; azkenengo hori ezaguna bada; ezezaguna bada eta aurkitzeko helburuarekin, iragarki bat argitaratuko da BOTHERA eta Udaleko iragarki taulan ganaduaren kanporatzea ezagutarazteko.



Ganaduaren jabea BOTHAn iragarkia argitaratu eta 15 eguneko epean agertzen ez bada, ganadua enkante publiko bidez salduko da, jabeak kalte-ordainketa jaso gabe. Enkantea egin baino lehen jabea agertuko balitz, berreskuratzeko aukera izango du Udalarari sortutako gastuak ordainduz gero.

### **16. Artikulua**

Berariaz edo gaizki erabilitzeagatik abeltzaintza ekipamendu edo azpiegiturretan kalteak sortzen duenak, dagokion isuna ordaintzeaz gain, eragindako kalte-galerak ere ordainduko ditu.

### **17. Artikulua**

Bazkatzeko eskubidea bertan behera utzi ahal izango da. Uzte horrek ez du ekarriko inongo kalte-ordainik edo kuota itzuli beharrik. Bazkatzeko eskubide hori hiru denboraldiz jarraian ukatu ahal izango zaio interesdunari, honako arrazoi hauengatik:

- a) Abereak zenbatu edo edozein zaintza-lanaren ondorioz, baimendutako abere-kopurua baino abere gehiago dagoela ikusten bada.
- b) Adierazitako kuota ordaindu ezean.
- c) Aprobetxamendua esleitzeko beste baldintzaren bat bete ezean.

## **II.- ZIGORRAK EZARTZEA ETA ORDAINTZEA**

### **18. Artikulua**

Arau-hausteak salatzea egintza publikoa da. Aguraingo Udalean salaketa jarri ondoren, dagokion espedienteari hasiera emango zaio interesatuaren entzutearekin eta Administrazioaren Prozedurari buruzko Legeari loturik.

### **19. Artikulua**

Administrazio bidez, erabaki irmoa jakinarazi ondorengo 20 eguneko epean isuna ordaindu ezean, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.



### **XIII.- AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau dagokion eranskinarekin batera, 2004ko urtarrilaren 23an sartu zen indarrean eta hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ALKATEA

IDAZKARIA



**AGURAINGO UDALERRIKOAK DIREN 610 MENDIKO ‘SOTOS Y VARGAS’EKO ABELTZAINZAKO APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**I ERANSKINA**

**KUOTAK**

Aguraingo udalerrikoak diren 610 Mendiko ‘Sotos y Vargas’eko abeltzaintzako aprobetxamenduagatik aplikatuko diren kuotak, Arabako Foru Aldundiak Erabilera Publikoko mendietan bazken aprobetxamendurako urtero oro har ezartzen dituenak izango dira.

Aguraingo Udalerrikoak diren 610 Mendiko ‘Sotos y Vargas’eko abeltzaintzako aprobetxamenduak arautzen duen ordenantza, eta horren parte den eranskin hau, 2003ko abenduaren 30an onartu zen behin-betiko.

ALKATEA

IDAZKARIA